



2003/03/06ko prentsa-oharra


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2003ko urtarrila**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %0,7 HAZI ZEN 2003KO URTARRILEAN

Industri Produkzioaren Indizea Bizkaian %3,1 igo zen, eta Araban eta Gipuzkoan, berriz, %0,3 eta %1,5 jaitsi, hurrenez hurren.

2003ko urtarrilean, %0,7 igo zen Euskal AEko industri jarduera, aurreko urteko hil beraren aldean, lan-egutegiaren balio homogeneotan, hau da, lanegun-kopuru bera kontuan hartuta. Hala ere, Industri Produkzioaren Indize Orokorraren balio absolutuetan neurtuta, %3,0 jaitsi da, joan den urtarrilak 2002koak baino lanegun bat gutxiago izan baitu.

Euskal AE-ko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



(*)2003ko urtarrileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT.

2003ko urtarrilean, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *garraio-materiala* (%8,2), *kautxua eta plastikoa* (%6,0), *ehungintza eta jantzigintza* (%5,7), eta *material elektrikoa* (%5,3) arloei, besteak beste.

Urte arteko tasarik negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-16,7), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-15,6), *bestelako enbrosak* (%-14,7) eta *ez-metalezko industria* (%-10,0) arloek, batik bat.

Bitarteko ondasunek eta ekipo-ondasunek %3,0 eta %8,3ko tasa positiboak izan dituzte urtarrilean, hurrenez hurren; eta kontsumo-ondasunak, aldiz, %4,7 jaitsi dira aurreko urteko hil beraren aldean. Balio absolutuetan, ekipo-ondasunak %3,4 hazi dira, bitarteko ondasunak apur bat jaitsi dira, %-0,5, eta kontsumo-ondasunak gehiago, %-8,4.

Industri Produkzioaren Indize Orokorra bilakaera desberdina izan du hiru herrialdeetan: alde batetik, Bizkaian hazkunde nabarmena izan da, %3,1ekoa, eta bestetik, jaitsierak izan dira Araban eta Gipuzkoan, %0,3 eta %1,5ekoak, hurrenez hurren, lan-egutegiaren balio homogeneousan neurtuta. Balio absolutuetan, aldiz, urte arteko jaitsiera izan da herrialde guztietan, %-0,4koa Bizkaian, %-4,1ekoa Araban eta %-5,4koa Gipuzkoan.

Taula: 2003ko URTARRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	2003ko urtarrileko aldakuntza-tasa		2002ko urtarrileko aldakuntza-tasa	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize Orokorra: Euskal AE	-3,0	0,7	-1,2	-1,4
Araba	-4,1	-0,3	0,3	0,1
Bizkaia	-0,4	3,1	-1,3	-1,6
Gipuzkoa	-5,4	-1,5	-1,8	-2,1
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Bitarteko ondasunak	-0,5	3,0	-1,8	-2,2
Kontsumo-ondasunak	-8,4	-4,7	2,0	1,9
Ekipo-ondasunak	3,4	8,3	-1,5	-1,6

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel.: 945 017 514. Faxa: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--